

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua 2023/11/22

Saila	Laburpena	
Obrak	Bizilagun bat kexu da San Kristobal kaleko igogailu berriak ez daukalako ez barandarik, ez eskudelik. Sostoa bizi dira. 17an bizi dira, eta 19raino ez dago barandarik.	Igogailua aipatzen badu ere, inguru hori ez dago igogailuaren obren eremuan.
Obrak	San Kristobal kaleko asfaltatze-lanez galdetzen du. Ea noiz egingo diren.	2023ko proiektuaren barruan 8 eta 12 zenbakien artean asfaltatu zen. Egingo da.
Zerbitzuak	Bigarren igogailuaren zikinkeriaz kexatzen da. Oso hondatuta dagoela iruditzen zaio, pinturaz eta zikinkeriaz beteta.	Igogailuak goizeko 6:00-7:00etatik aurrera garbitzen dira, urteko 365 egunetan. Arazoa ez da garbiketa falta, heziketa falta baizik. Hala ere, bere garaian jakinarazi zitzaion garbiketa-arduradunari.
Zerbitzuak	San Kristobal kaleko 14tik 16ra bitarteko eskailerak ez dira garbitzen. Zikinkeriaz beteta daude.	Mankomunitatetik diote astean hirutan garbitzen direla. une honetan guztiz garbitu da ingurua, auzoko sasiak kenduta. Aurrera begira, hidrogarbitzailea pasatzea ere aurreikusten da.
Udaltzaingoa	Aurreko kexarekin lotuta, ibilgailuek kolore horiko marretan edo espaloietan aparkatzen dute.	Agenteek zigorrak jartzeko agindua dute eta zigor dezente jartzen dira.
Udaltzaingoa	Kexa: auzoan erregularatasunez aparkatzeko zailtasuna.	Badakigu zer arazo dagoen auzoan aparkatzeari dagokionez. Zaila da aparkatzea eta aparkaleku berriak sortzea. Laster, Ipuruako Anexoko aparkaleku berriak aterako dira lizitaziora, eta espero dugu horrek arazoa pixka bat arintzea.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua 2023/11/22

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Kexu da Anexoaren ondoan dauden garajeak direla-eta; galdetzen du ea iaztik zerbait aurreratu den gai horretan.	Bai, aurki lizitaziora aterako dira. Ia prest dago dena; hemendik gutxira emango da horren berri.
Udaltzaingoa	Salatu du San Kristobalgo arrapala beti dagoela aparkatutako kotxez beteta.	Bai, San Kristobal kaleko 14 zk.ko arrapala da; ez dago aparkatzeko debekurik.
Zerbitzuak	Galdetu du edukiontzien aldaketari buruz eta eskatu du pentsatzeko zer zaila den adineko pertsonentzat zabor organikoa halakoetan lagatzea.	Auzoko bileran egon zen Mankomunitateak honako hau erantzun du: "Printzipioz, edukiontziak pedalak dituzten elementutzat hartzen dira, eta irisgarritasuna dute eta betetzen dute"
Obrak	Bizilagun batek eskatu du Argatxarako jardinetara igotzeko eskailera mekanikoen ordeztu arrapala mekaniko bat jartzea.	Dagoen pendizak ez du aukerarik ematen arrapala mekanikoak jartzeko.
Obrak	Santa Ines kaleko auzokide batek eskatu du eskolen inguruko irisgarritasuna hobetzeko.	Aztertu egin da eta ez da bideragarri ikusten, dagoen pendiza eta espazioa direla eta.
Zerbitzuak	Eskatu du Ipuruako Merkatu Plazaren erlojua garbitzeko.	Lan-agindua egin eta garbitu egin zen.
Zerbitzuak	Arbola bat dago laugarren pisuraino ailegatzen dena, Argatxako Jardinetan, Romualdo Galdos 5 zk.an.	Lan-agindua egin zen arbola inausteko. Lana 2024/02/14an amaitu zen.
Zerbitzuak	Salatu du ur asko pilatzen dela Ipuruako komentuaren aurreko horman.	Lan-agindua egin zen ingurua aztertzeko. Ikuskaritza egin ondoren, ez zen ezer arrarorik ikusi; erretenak berrikusi ziren.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua 2023/11/22

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Informazioa eskatu du Anexoko garajeei buruz. 38 aparkaleku-plaza dira.	Hemendik egun batzuetara aterako dira. Informazioa emango dugu.
Zerbitzuak	Jazinto Olabeko plazan, arkupeak ez daude ondo argiztatuta; oso gune iluna da. Eskatu du argiteria jartzeko eta arkupeak horizontalean irekitzeko. Jazinto Olabe 2 eta 3 zenbakien artean.	Arkupeak giltzaz itxita daude eta pribatuak dira.
Alkatetza	Ipuruako Kiroldegia egoera txarrean dago: itoginak, ez dago markagailurik.	
Obrak	Bizilagun batek eskatu du komun publiko bat jartzeko Azitain eta Maltzaga arteko bidegorrian.	Komun autogarbigarri bat jarri da Maltzaga inguruan. 2024ko uztailean jarri zen martxan.
Udaltzaingoa	Zebra-bide bat eskatu du Sostoaan jublatu-etxeraino. Ez dago halakorik kuarteleko horman. Halaber, eskatzen du goragune bat jartzea kale berean, igarotzen diren ibilgailuen abiaduragatik.	Erabaki da laster seinale bat jartzea.
Alkatetza	Ipuruako Kiroldegia egoera txarrean dago: itoginak, ez dago markagailurik.	Behar diren mantentze-lanak eta inbertsioak egiten ari gara, gai horretako gorabeherak murrizteko edo ezabatzeke.
Obrak	Zulo bat dago jublatu-etxeraino iristeko zebra-bidean. Hura konpontzeko eskatu du.	Berrikusi zen eta galtzada egoera onean zegoen.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua 2023/11/22

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Galdetu du ea zeini deitu behar zaion eskailera mekanikoak geratzen direnean.	Ikusten denean eskailera mekaniko edo igogailuren bat geldirik dagoela, Udalarari abisatu beharko litzaioke (Pegora, Udaltzaingoa, Zerbitzuak...).
Obrak	Igogailu bat eskatu du herritik Isasiko goialdera igotzeko edo handik Untzagara jaisteko.	Azterlan bat egin eta baloratu egingo da.
Zerbitzuak	Kexa: txakurren kakak eta begetazioaren garbiketa, trabatzen diren hustubideak... Azken batean, eskatzen du mantentze-lanak zaintzea.	Begetazioa garbitzeko lanak aztergai izan dira duela gutxi Mankomunitatearen eta Zerbitzuetako Sailaren artean. Bere garaian Mankomunitateari jakinarazi zitzaion sasiak garbitu ondoren ez direla geratzen diren hondarrak erretiratzeko, eta horrek arazoak sortzen dituela, batez ere ezponden garbiketan; izan ere, moztu den begetazioa jausi egiten da, eta kutxatila eta sareta trabatzen dira. Txakur-kakak direla-eta, HEZIKETA falta da arazoa.
Zerbitzuak	Egiturentarren 4 eta 6 zenbakietan lauzak apurtuta daude.	Lan-agindua egin zen Egiturentarren kaleko 4 eta 6 zenbakietako baldosak konpontzeko. Lanak 2023/11/29an amaitu ziren. Inguru guztia aztertu eta konpondu zen.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek zebra-bidea eskatu du Sostean. Gainera, pasatzen uzteko seinalea dago eta ez diote kasurik egiten.	Erabaki da laster zebra-bide bat jartzea. Zebra-bideei kasu egiten ez dieten ibilgailuei dagokienez, halako lege-urratzeren bat ikusten denean, salaketa jartzen da.
Zerbitzuak	Ipuruan, irisgarritasuna, oro har, zaila da. Eskailera mekanikoak itzalita daudenean, ezin dute goraino igo. Buelta handia eman behar	Eskailera mekanikoen ordutegia 23:00ak artekoa da; izan ere, zarata eragiten dute eta eragozpenak sortzen dizkiete bizilagunei. Makina bat bider kexatu dira bizilagunak eta

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua 2023/11/22

Saila	Laburpena	
	dute Ipuruako dorreetaraino iristeko. Eskatzen du eskailera mekanikoen ordutegia luzatzea.	Udalera deitu dute, zaratagatik kexaka, ordutegia luzatzeagatik.
Zerbitzuak	Bi dorreen artean dagoen parkean ura jausten da etengabe eta kate herdoilduak daude.	Iturria berrikusi eta konpondu egin zen. Hala ere, eta kontuan hartua bileran —non mankomunitatea ere presente egon zen— jakinarazi zela inguru horretan putzu bat sortzen zela, Mankomunitateko zerbitzua joan zen ura jasotzen duen hustubidearen egoera aztertzea, eta ikusi zen arazoa barrukoa dela, garajeena; eta horregatik pilatzen dela ura bertan. Mankomunitateko zerbitzuak mahuka sartu zuen eta ikusi zuen, beherantz, tutua “itxi egiten zela”.
		Gaia. JARDINERAK: Lan-agindua eman zen jardinerak berrizteko (oxidoaren aurkako tratamendua eta pintaketa-lanak). Ikuskaritzaren ondoren, ikusi da jardinerak oso hondatuta daudela (herdoildua); soldatu egin dira zati batzuk, baina egoera aproposago bat aztertzen ari dira (konpontzea, aldatzea...).
Zerbitzuak	Jose Antonio Guisasola kalean, parkeko etxeetako kanaleta askok ez dute funtzionatzen. Eskatu du erretiratzeko, ez dutelako funtzionatzen eta herdoilduta daudelako.	Jazinto Olabeko bizilagunek duela urte batzuk eskatu zuten atzealdeko arkupeak ixtea, eta erabilera pribatukoak izatera igaro ziren. Kexan aipatzen diren zorrotenak fatxada horretan daude, eta, beraz, jabeei dagokie zorrotenak eta teilatuaren zorrotenak mantentzea.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua 2023/11/22

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Kaxaren aurrean, parke bat dagoen tokian, eskatzen du zebra-bide bat jartzea. José Antonio Aguirre 4 zk.. Isasi 25 zenbakiaren atzealdea.	Aztertzen ari dira ea beharrezkoa den.
Hirigintza	Kexu da Ipuruatik Zezenbidera joateko irisbidea konplikatua dela. Espaloiak estuak dira eta eskailera asko daude.	Zezenbide kalea estua da, eta bermatu egin behar du ibilgailuen eta oinezkoen sarbidea goi alderaino. Kexan adierazten den bezala, espaloiak oso estuak dira. Koexistentziako tratamendu espezifiko bat eman ahalko litzateke, baina horrek ez luke konponduko kalearen pendiz gogorra (azken partean espaloi mailakatu batekin konpontzen dena). Ez zaio konponbide bateratu bat aurkitu arazoari. Soluzio puntualak aztertzen ari dira, baina haien arteko konexioak ebaztea falta da.
Obrak	Peña txinberoaren inguruan zuloak daude.	Zerbitzu Sailak konpondu ditu.
Obrak	Romualdo Galdoseko lau dorreak: Fatxadak pasillo bat zeukaten jardinarene eta fatxada nagusiaren artean; birmoldaketa egin zenean, pasilloa kendu. eta jardinarene maila goratu egin zen. Etxabeek hezetasun handia dute. Eskatzen du pasillo horiek berriz ere egitea.	Zerbitzu Saila soluzio bat aztertzen ari da.
Zerbitzuak	Parkeetako iturria, Mankomunitatearen gunearen aurrealdean, oso egoera txarrean dago. Baita inguruko bankuak ere.	Bere garaian, bileraren ostean, iturria berrikusi zen; aipatu behar da aurtengo urriaren 23an berriro aztertu zela. Iturria

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua 2023/11/22

Saila	Laburpena	
		desmuntatu, emaria erregulatu eta garbitu egin zen. Bankuei dagokienez, esan behar da pintatzen ari direla, eta, bide batez, aukera hori aprobetxatuko dela haur-jolasak ere pintatzeko.
Hirigintza	Informazioa eskatu du termiten gaiari buruz.	Argatzako Jardinetako eraikinen multzoak hormigoizko egitura du; hortaz, ez dio eragiten eraikinen segurtasunari. Arazoaren dimentsioa ebaluatzeko, zuzenean eragindako erkidegoei ez ezik, erkidego guztiei galdetu zitzaien ea arazorik zuten, eta ez da horrela izan. Arazo puntuala da eta banaka landu da.
Zerbitzuak	Galdetu du eta markesinan jar daitekeen Eibar-Bilbo lineako autobusen ordutegia.	Bai, Udaltzaingoa arduratzen da horretaz. Behar izanez gero, zuzenean deitzeko eskatzen da, jar dezaten.
Udaltzaingoa	Kexu da zaila delako aparkatzea partida-egunetan. Esan du edozein modutan aparkatzen dutela.	Partida dagoen egunetan, futbol-zelai inguruan ibiltzen diren agenteek gaizki aparkatutako ibilgailuak salatzen dituzte, batez ere gehien molestatzen dutenak zebra-bidean eta espaloian aparkatzeagatik.
Zerbitzuak	Kexa: zaborra jasotzen denean komeni da edukiontzia ondo jartzea, zeren askotan pedala blokeatzen baita.	Alboko Kargako edukiontziei dagokienez, 2025ean zentratzaileak jarriko dira.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Ipurua 2023/11/22

Saila Laburpena

Udaltzaingoa Pasabide goratuengatik kexatzen da. Eskatu du beste metodo eraginkorrago batzuk aztertzeko.

Abiadura murrizteko bandak eta zebra-bide goratuak metodo kontrastatuak dira, herrialde gehienetan erabiltzen direna oinezkoen eta beste ibilgailu batzuen segurtasuna handitzeko.

Azken urteetan, abiadura murrizteko kontrol-radarrak ere jarri dira herriko hainbat pùntutan.